+

Santuario de Aránzazu, 1952'go Jrallak 24.

OÑATE
(Guipúzcoa)

A1 17

Pierre Lafitte Abade Jauna.
Ustaritz.

Neure Abade Jauna: Bakea ta Ona.

Oraindik oraintxe amaitu dogusan bakaziñoetan irakurri dot Lapeyre Abadearen "Credo edo sinhesten dut esplikatua". Liburu orreri buruz urtero egin daroagun academia egitea otu iat niri. Egia esan, ez dakit nik Lapeyre Jaunaren barri bat be. Ya zelan edo alan jakin egin bear asmatu dodan bearra osorik argitaratuko badot beintzat. Arimen onagaz arduratua bizi zala, buru argia ebala ta euskaldun jatorra be bazala, liburu orretan bertan dakust; baña orregaz ganerako gausarik bat be ez: ez noiz eta nun jaio zan, ez nungo abadeki-etxean ikasi eban, ez beste libururik idatzi baeban, ez ezer.

Zeuk, neuri Abade on orrek, emon leistazu gausa orreri buruz niri dagokidan ezagutza, ta emoidazu, arren. Mesede orregaz, milla esker egitera beartuzik itxiko nozu ta nik aurretiz dagitsudaz.

Agur, Jauna!

Agindu fabore on zor deutsun

Gandiagatar Biktoriano Frailleari

Santuario de Aránzazu

OÑATE

(Guipúzcoa)

1.952'go. Maiatzak 10

Pierre Lafitte Abade Jauna.

Uztaritz.

Neure Abade Jaun agurgarria: Bakea ta Ona.
Gaur lau egun artu nebanzuk idatzia. Milla es-
ker, Jauna. Karta onek esker egitea ezpada bes-
te zerik, ez dauko. Baña onixe esan gura neus-
kizu bidebatez: Lapeyre Jauna eskritore dana
zuk dinoskazun baño obeagotzat neukala. La-
peyre Jauna idazlari on, bikain bat zalako-
tzat neukon da. Liburu on bat irakurten
dan amorruz irakurri neban bere "Credoa" gozoa
bai eristan, euskerea be bai baita euskerea be.
Izan gaztea naiz ni izatez, euskera bunaz era-

bilten oraintxe asi barria ta oraindik gustoa zoli dau-
kodana. Orregaitik ondo baño obeto etorri iat zure
eritxi aporgarria jakitea. Bijoz aurrean erabilliko dot.

Aita Luis Villasante'ri erakutsi neutzozan Lapeyre Jau-
nari buruz idaztazuzan barriak; bera izan be izan zan-
ta gure autuko liburu oni irakurteko itxi eusta-
na. Ta academia izan bear deutsadana be bera
dalako. Eskerrak emoteko eskribidu bear neutsu-
la esan neutsan eta gorantziak bere aldez
zeuri emoteko agindu eustan. Nik zintzo da-
marotsudaz: A. Luis Villasante'ren aldez, gorantziak.
Jauna.

Nik, zugan izango naiz
neure otoitzetan.

Gandiaga'tar Biktorian fraillea